



JON HERNÁNDEZ / ARGIAZKI PRESS

«Errealitatean bizi naiz orain»

INAKI GARITAONAINDIA 'GARI' Musikaria

Indarberrituta sentitzen da Gari, «indartsu eta gogotsu». Egoera horren emaitza da plazan jarri berri duen diskoa: 'Esperantzara kondenatua'

IRUNE BERRO
Bilbo

Arratsalde goibel eta eurtsuan erantzun die galderei Garik (Legazpi, Gipuzkoa, 1963). Lasai dago. Eta pozik, «oso pozik». Elkar disko-etxearekin oraintsu plazaratu duen diskoa azken urteetan egin duen lanik biribil eta ederrena dela dio.

Duela hiru urte zerotik hasi zinen. Non zaude orain?

Beti hasten, nahiz eta ez zerotik kasu honetan. Orain aldatu dena da errealitatearen barruan bizi naizela. Eta disko hau ere bai hor kokatuta dagoela, errealitatean. Rock kontzeptura hurbildu nahi nuen disko honetan. Intentsitatea, indarra, kontzeptu askoz ere orokorragoa —eta askoz ere gogorragoa— landu nahi nuen diskoan. Alde horretatik, *O-tik* diskotik honetara gauza asko aldatu dira. Diskoa ez dago hamaika kantuz osa-

tuta bakarrik. Hamaika kantu ditu, bai. Baina azalaren proiektua hor dago, idazleekin eta kolaboratzaileekin izandako harremanak ere bai... Beste prozesu bat izan da. Eta prozesu hori bideratzeko beharrezkoa nuen indartsu sentitzea. Indartsu sentitu naiz —eta sentitzen naiz—.

Behin baino gehiagotan aipatu duzun iluntasun hori atzean utzi duzu betiko?

Zer da iluntasuna... Ez, ez dakit atzean utzi dudana. Uste dut nire kantuetan nahitaez azaltzen dela. Ez da premeditatua. Gero saiatzen naiz, grabatzerakoan eta, nolabait kolore pixka bat ematen kantei. Hala ere, uste dut disko hau ez dela besteak bezain iluna. Norbera ondo sentitzen bada, norberak ikuspegi baikorra badu gauzen aurrian... Norberaren musikan adierazten da hori. Ez dakit nola, egia esan. Ez daukat ideiarik ere nola adierazten den —ezta jakiteko beharrik ere—. Baina sumatu egiten da.

Zerk sentiarazi zaitu indartsu?

Ez dakit... Ez dakit. Ez daukat ideia zipitzik ere. Kasu honetan horrela izan da. Lerro batzuk nituen diskoa egiteko, nahiko definituak. Baina diskoa egiteko prozesua hasi nuenean, lerro horiek berrehala desagertu ziren. Intuizioari jarraitu nion. Eta horrela etorri da

dena. Askoz ere inprobisatuagoa izan da disko hau besteak baino. Lotura patua izan da. Hor goian daukadan izar batek gidatu nau prozesu honetan, patu honetan... Atzera begiratzen badut, ez dakit nola etorri den hau guztia, ezta zer-gatik ere. Baina horrek berdin dio. Oso harro nago diskoarekin.

Hamar bat ematen diozula esan duzu.

Bai, baina izan duen prozesuagatik. Harremanak oso bereziak izan dira. Halako *feeling* garrantzitsua sortu da proiektuaren barruan, eta oso-oso gustura aritu gara. Gainera, sentimendu kolektiboa izan da. Proiektu batean ehuneko ehuna ematea harro sentitzeko modukoa da. Alde horretatik, oso-oso harro sentitzen naiz.

Esperantzara kondenatua zaudela sentitzen duzu?

Kondenatua bai —denok gaude zerbaitea kondenatuak—. Eta esperantzara ere bai, dudarik gabe. Diskoaren ardatza bizitzaren abenturari buruzko istorioak dira, proiektuak, sentimenduak, emozioak... Gauza horiek. Kasu honetan, proiektu honetan, lagun batzuekin elkartu naiz, eta hitz egiten, solasean, sortu dira abestiak. Hitzak jarri dizkiete nik azaldutako istorio eta sentimenduei. Esan daiteke disko autobiografikoa dela, nolabait. Baina, era berean,

beste ikuspegi batetik begiratuta, esandako guztia ezeztatuz dekadala uste dut. Ez dakit. Garrantzitsuen proiektu honetan niretzat izan da indartsu sentitzea, gustura egotea, eta harrotasunez amaitzea diskoa. Egin dudana lanik osatuena eta ederrena da disko hau, dudarik gabe.

Aurreko diskoa egiteko gauza asko delegatu zenituen, beste lehentasun batzuk zenituelako; Mikele alaba txikiak, esaterako. Orain, ordea, ez duzu halaxe egin, ezta?

Ez. Proiektu honetan buru-belarri egon naiz arlo guztietan, hasieratik bukaerara. Hala behar zuen disko honek. Lehen aipatutako izartxo horrek indarra eman dit zenbait unetan aurrera egiteko eta nahi nituen gauzak bideratzeko. Alberto Garcia-Alixek proiektuan parte hartzea erraza izan da, adibidez. Eta niretzat ohore bat izan da berarekin lan egitea. Ivan Ferrei-

«Diskoaren ardatza bizitzari buruzko istorioak dira, proiektuak, sentimenduak, emozioak...»

«Kantak egiteko idazleengana jo dut, ez nintzelako gai barruko sentimenduak adierazteko»

roekin berdin. Zuk maite duzun jendea zure proiektura ekartzea ez da erraza izaten askotan. Nire proiektua zuzendu dut nik nahi nuen moduan, eta jendaurrean azaldu dut nik nahi nuen bezala. Musikalki ere babes handia izan dut. Franekin [Iturbe] batera antolatzen nuen taldea; buru-belarri sartu ginen biok produkzio prozesuan, eta oso gustura aritu gara. Barruko prozesu kreatiboa izugarri intentsoa izan da, oso ederra.

O-tik diskoan egin bezala, zenbait idazleengana —Jose Luis Padron, Jon Benito eta Jon Maia— jo duzu berriro ere abestien letrak osatzeko.

Proiektu honetan ez dut ezertxo ere idatzi. Zuzenketa batzuk besterik ez ditut egin, txikiak. Ez nintzen gai barruko sentimenduak ondo adierazteko. Niretzat sorpresa handia izan da Padronekin lan egitea. Ez genuen elkar ezagutzen. Dena kasualitatez etorri da, eta garrantzitsua da horrela izatea, zeren gure artean harreman berezia eta polita sortu da. *Esperantzara kondenatua* abestia idatzi du berak. Bi hitz horiekin garbi azaltzen dut zein den nire jarrera disko honetan.

Hitz ezkor eta gogor samarrak dituzte abestietako batzuek; *Esan zidaten* kantua, esaterako. Haatik, itxaropenari tartea egiten diotenak ere badira; *Gaur edo Nire gu berriarekin*. Zer da diskoaren bidez adierazi nahi duzuna?

Diskoak badauka kutsu autobiografikoa. Pasatu ditugu ordu asko denon artean gai horiei bueltak ematen, luze eta zabal hitz egiten. Eta nik uste dut denok bizi izan ditugula mina, amodioa, ezintasuna, beldurra, zoriontasuna... Gai horiei buruz egon gara mintzo eta mintzo. Solasaldi luzeak izan ditugu, oso luzeak. Eta horren ondoren idatzi dituzte haiek abestiak. Baina ez dut uste abestiek mezu ezkorra dutenik, ez diet mezu hori eman nahi izan, behintzat. Ez dago kantu bat mantso jota diskoan. Intentsitatearekin jota daude denak, indarrarekin. Guretzat garrantzitsua zen hori. Kantuak egiterakoan saiatu naiz distantzia hartzen. Kantuen konponketei errepazten badiezu, adibidez, erakargarriak dira. Nahiz eta hitzak gogorrak izan, edo agresibitatea adierazi, musikak hori guztia leuntzen du.

Euskarazko eta gaztelaniazko abestiak tartekatzen zenituen aurreko lanean. Zer harrera izan zuten gaztelaniazkoek? Jendeak zer esan zizun haiei buruz?

Ezer ere ez. Nork esango dit zer... Lau katuk entzuten naute!

Disko berrian, ordea, gaztelaniazko kantu bakar bat dago, Roberto Mosok idatzitako *Por la paz* Maria se fue a la playa.

Nik ez dut aurrez zehazten zenbat kantu egingo ditudan hizkuntza batean eta zenbat bestean. Parekidetasuna ez dut kontuan hartzen; hemen ez dago parekidetasuna aintzat hartzerik. Kantuak sortu egiten dira. Sortu egiten dira hizkuntza batean edo bestean, euska-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)